

Literatura > LIBURUAK

Poesia mailu bat dela

BENAT SARASOLA

Hamabost urte baino gehiago libururik argitaratu gabe igaro ostean, Jon Aranok hirugarren poema liburua kaleratu berri du, Elkar argitaletxearekin eta Joseba Jaka bekaren laguntzarekin. *Zeruak eta ifrentzuak* izena jarri dio liburuari, eta bertan Aranoren poetikaren ezaugarri nagusiak topatuko ditugu berri ere.

Poeta heterodoxorik baldin bada euskal literaturan, hori Jon Arano da. Inoiz poema batean topatuko ez zenukeen orok amenazo egiten du haren poemetan, deskuiduan orrialdearen bestaldean agertuko zaizkizularik. Porno izar bati eskainitako poematik hasi (*Arnoz eta pornoz*), *Ixaro* edo *Pikondoko poema* bezalako testu harriarrietaraino. Erregistro ezberdinen arteko nahasketak etengabe darabilzki: pop kulturako elementuak eta baserri girokoak, «goi kulturako» (Oscar Wilde) eta «behe kulturako» (Txirrita) erreferentziak, bertso libre eta koplak eta abar. Besteik, Aranok hitz jokotarako duen zaletasuna ere azpimarratzekoa da —tituluan bertan, urrutira joan gabe—, Koldo Izagirreraren

ildo berean, baina denik eta indar burleskoena gehituta: Euskal Herria, ez dok amaitu!, Euskal Tedespista... Umorea oso present baitago, baita hitz-jokoetatik landa ere, eta beti azaltzen da halako ukitu azido batekin, ahalmen satirikoaren mende. Horrela, batzuetan benetako umore kolpekin topa zaitezke: «Baina hildako honek, / hobe hilda hobeto dagoen honek, / ez daki leitzen, / eta ere gutxiago zeruan, / hegaztiak urratu duten / zure izena marisol».

Testuartekotasuna ere erruz erabiltzen du Aranok, baina baliabide horrek maiz izan ohi duen hotsandirik gabe. Horrela, poema bat «Sarri, sarri, sarri, sarri / triste antza nabil» bertso lerroekin bukatzeko gai da edo beste batean Bernardo Atxagaren *Lizardi* poema moldatuko du bere erara. Izan ere, liburuak badu halako joera kontzeptista bat, nahiz eta ez den inolako hermetismo edo iluntasun poetikoan erortzen; eta ez da harritzekoa, beraz, hain quevediarak diren kontu garbiketa formako poemekin (*Historiaren Hasier* eta *Bukaer* eta *Oraingo aberats berriak*) topo egitea. Kasu horietan poemak jaurtigai bihurtzen dira, eta gaur egun euskal



■ 'Zeruak eta ifrentzuak'

Egilea: Jon Arano.

Argitaletxea: Elkar.

Urtea: 2007.

literaturaren barrenean urri aurki daitekeen tonu garrantz eta ausarta lortzen dute, Jon Mirande eta Gabriel Arestirekin lotu daitezkeen. Egia esan, ildo horretako

zenbait poeta egon badaude egun, baina, era berean, poetok izan ohi dituzten hainbat gaitz saihesten ditu Aranok: sermoikeria, nostalgia malenkoniatsua, burla erraza eta topikoa, etaabar. Hala, Aranok ez du tarterik uzten lore jokotarako, lirikatik urrun dagoen poesia jorratzen du, feismo ukituak dituen poesia zuzen eta burtitza. Apustu tinkoa egiten du poema bakoitzean, erdibidean geratu gabe, eta ondorioz emaitza ere ñabardura gabekoa izaten da; poema batek zinez harritu eta kolpatuko zaitu, eta hurrengoa, agian, zabarregia eta sinplegia irudituko zaizu; baina horiek, azken batean, bere estiloaren ajeak baino ez dira.

Gainera, liburua estilo horrek gurutzatzen badu ere, egia da, halaber, aldiro-aldirotu giro horretatik at dauden poemak aurkituko dituela irakurleak (*Argi-ilunak*, *Han har eskarmentu*), hain zuzen ere, arestian aipaturiko heterodoxiari jarraiki. Honakoa poemen bilduma bat baita funtsean, hots, izaera autonomoa duten poemak apailaturik agertzen dira, eta horrenbestez, denetarik aurti daiteke. Irakurleak liburutik zenbait poema erreskatatu ahaliko ditu bere baitan gordetzeko, gutxi asko baina bakoitzak bereak. Eta agian zenbaitzuk esango dute hau poesia ez dela, baina...

>> bsarasola@berria.info



■ 'Idatz & Mintz', 43. zenbakia

Argitaratzailea: Labayru ikastegia.

Data: 2007ko azaroa.

Aurrekoetan legez, *Idatz & Mintz* aldizkariaren 43. zenbakiaren ardatza literatura da. Bi ikerketa lan jaso ditu: Adolfo Arejitak Otxolua eta literaturaren gainean idatzitakoa eta Jabier Kalzakortak bi amodio kantaren inguruan egindakoa. Bestalde, Asel Luzarragaren eta Xabier Zalbiderearen narrazio bana nahiz Iñigo Roque eta Miren Ibarluzearen poema bana datoz aldizkarian.



■ 'Gaur egungo teoria soziologikoa'

Egilea: Iñaki Unzueta.

Argitaratzailea: EHU. Urtea: 2007.

Irakurleari zalantzak eragitea helburu hartuta idatzitako Iñaki Unzueta *Gaur egungo teoria soziologikoa* liburua. Pentsaraztera bideratuta dauden zenbait teoria azaltzen ditu egileak. «Liburua ixten duenean, irekitzean baino dezenteko gehiago jakin beharko luke irakurleak». Ez du soluziorik eman nahi, kezka sortu baizik.



■ 'Harreman-estilo berri bat'

Egilea: Koldo Saratxaga.

Argitaletxea: Elkar. Urtea: 2007.

«Enpresak pertsonetan oinarrituz antolatu behar direlako» harreman-estilo berri bat proposatu du Koldo Saratxagak liburu argitaratu berrian. Bere esperientzia oinarrituz dihardu: enpresaren kontzeptua aldatuz doa, baita horren barruan sortzen diren giza harremanak ere, eta pertsonen partehartzea da enpresak organizatzeko modurik eraginkorrena.

Idazlea bere buruarena egiten

BIXENTE SERRANO IZKO

Oso ezaguna da idaztearen eta *striptease*-aren arteko analogia. Euskarazko idazleez mintzo, inorengan egia bada, Patziku Perurena dugu inor hori. Oroitu hamalau urte duela *Marasmus femininus* saiakeraz, nola iritsi zen muturreraino *striptease* ariketetan, eta zer kritika erauntsi bortitza etorri zitzaion zirimolaka, gainera. Onartu al du egileak urrunegi joan zela harako hartan? Horrela dirudi, ElEren webgunean ez baita liburu hura agertzen goizuetarraren bibliografian. Edo nola ere, ordutik hona luzatuz joan da haren obren lista, eta eutsi egin dio Perurenak bere joerari, idazkien bitartez bere arimaren biluzgorritasuna agerian uzteko horri. Gustukoa du aho bilorik gabe adieraztea pentsatu eta sentitzen duena, bere buruari buruz doala edo hurkoari buruz. Oraingo *Dakiguna ikasten* ez da salbuespena.

Arriskutsua da, arriskutsua denez, *striptease* lana. Erakustendunarenegatik ez ezik, erakusteko modurengatik ere bai. Balio handiko ikuskin artetikoa lor dezakezu zenbat ere arrunt diren erakusgai dituzun sekretuak, baina



■ 'Dakiguna ikasten'

Egilea: Patziku Perurena.

Argitaletxea: Alberdania.

Urtea: 2007.

erraza da labaintzea, barregarri gelditu edo ikusleengan higuina probokatzeraino, tentuz egiten ez baduzu. Nago hori gertatu zaiola liburu honetako artikulutxoren ba-

tean. Izan ere, gauzak kontatzera koan, mikro-historia deiturikoarekin dago maitemindurik Patziku Perurena, eta badaki lotzen pasadizoak ideia edo sentsazio orokoragoekin, badaki istorio xeheetan oinarritzen ustekabeko gogoeta bati heltzeko. Baina erraza da mikro-historiatik ere *reality show* generora irristatzea, pasarteren batean egin duen bezala. Ezer ere ez zukeen liburuak galdu, eta bai, ordea, gehiago irabazi holako gutxi horiek plazaratu ez balitu.

Izan ere, zer gozatu baitu liburuak, berez. Plazer bizia da haren orrialdeetan murgiltzea, Perurenak ohi duen euskara aberats eta adierazkor hori belarrietan, ezusteko gogoeta paradoxiko horiek gogoan, hitzen arimaren inguruan intuizio semantiko eta etimologiko horiek dastatzen, haren begien bekaizti gureak ikusten ez jakiteagatik bide bazterreko zirrikituetan gure idazleak ikusten dituen zertzeladak. Bikaina, hari horretara, liburuaren sarreara, *Ze merkea den atsegina* izenburuko mendi ibilaldia. Hori da, hori, mendian ibiltzen jakitea!

Irakurlearekin zakar agertzea du gustuko, xamur eta maitez beterik, halaber, naturarekin eta hiz-

kuntzarekin. Gorroto ei dio artifizio orori, sofistikazio hirrat orori, ez zaiolarik inporta gogoeta bakoitzean trapu bat gehiago kentzea bere gorputzeko xoko-moko ezkutuenei. Nahasketa bitxia berea: Frai Antonio Gebarakoren *Memos precio de corte y alabanza de alde* ekartzen diu burura, baina guztiz bertzelako izpiritu batekin, fraidearen purustada moralistetatik at, Nietzscheren nahimen-indar hausleetan murgildurik: nihilismo eramateko gai litzatekeen izpiritu batekin, ez balitz izan naturako parajeetan eta hitzen zirikueta babesa eta heldulekurik aurkitzen duelako. Itxuraz, bederen.

Estimurik ez adiskidetasunari, sano deritzo gorrotoari, bere «gatazka eta ezin konponduak» ditu umorearekin, «kontsolamendu eskaseko artifizioa» iruditzen zaio ironia... nietzschearen noblezia tolesgabea hobetsiz gizarteak eskatzen dituen bertute taldekoiak baino. Aitortzen du, alabaina, Unamuno eta Barojarekin bat, idazle guztiek nork bere buruarena egiteko idazten dutela.

Umorearen orde, sarkasmoa nagusi. Alta, jabetuz gero sarkastiko plantak egiten dabilela Perurena, parada paradoxikoa izan du irakurleak kontraeranez beteriko mundu hau umorez eta ironiaz ulertzen saiatzeko.

>> bserrano@berria.info